



Familia estimatua,

Ikasturte hasierarekin bat eginez, aurtengo Eskolako Agenda 2030 programa martxan jartzeko lehen urratsak ematen ari gara. Programa bi ikasturteko zikloetan garatzen da eta ziklo bakoitzean garapen Jasangarriko Helburu (GJH) bat lantzen da. Une honetan, **GJH 11: HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK** lantzen ari gara, eta zehazki, **MUGIKORTASUN JASANGARRIA** da jorratzen ari garen gaia.

Oraingoan, bi ikasturteko zikloari amaiera emango diogu. Iaz diagnostikoa burutu genuen eta aurtun ekintzetara pasatzeko garaia iritsi zaigu. Beraz, esku-hartze plana gauzatuko dugu.

Hamaikagarren GJH honen xedea Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea da. Eta helmuga ezberdinen artean, garraiatzeko modu jasangarrien erabilera sustatzen du.

Iaz, hiriko auzo desberdinen egoera aztertzeaz gain, ikastetxera nola goazen aztertu genuen ere. Donostiako auzoetako kaleak eta errepideen egoera, oinezko bideak, bidegorri sarea, auzo batetik bestera eta hiritik kanpo irteteko ditugun garraio motak, garraio publikoa...

Azterketa horrek gure ohituretan hausnartzeko eta hobekuntzak identifikatzeko aukera eman digu.

Beraz, iaz ateratako ondorioetatik lehentasunak markatu eta ikasturte honetan aurrera eramango ditugun ekintzak zehaztuko ditugu. Ekintza hauen helburua ez da soilik ikasleak jasangarritasunean hezte, baizik eta beren ingurunea eraldatzeko prozesuan parte hartzea.

Zuek ere **interesatu eta parte hartzera** gonbidatu nahi zaituztegu. Familien inplikazioa funtsezkoa da proposatutako ekintzek benetako eragina izan dezaten. Zuen seme-alabekin ikasten ari direnari buruz hitz egitera, ideiak partekatzen eta ikasturtean zehar garatuko diren ekimenetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Elkarrekin, Donostia, guztiontzat hiri jasangarriago bat eraiki dezakegu. Eskerrik asko zuen laguntza eta konpromisoagatik.

Agur bero bat,